

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

34/2023 TXOSTENA

Gaia: Udal igogailu, ate automatiko eta "salvaescaleras" mantentze zerbitzu kontratua aldatzea

Espediente zenbakia: KON_IS_0004 (2021)

Espediente sustatzailea: Zerbitzu saila

Espediente tramitatzaileria: Idazkaritza saila

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

Ikuskatutakoa	Bete da	Oharrak
<p>Espedientean:</p> <p>Kontratua indarrean dago</p> <p><u>Aldaketaren interes publikoa justifikatu da</u> zein aldeko proposamen teknikoa dago</p> <p>Aldaketa pleguetan aurreikusi da</p> <p>Guztira hasierako prezioaren %20ra arte</p> <p>Modu argi, zehatz eta erratuezinean zehaztuta dago</p> <p>Ez du banakako prezio berririk suposatzen</p> <p>Ez du kontratuaren hasierako izaera aldatzen</p> <p>Prozedura pleguetan ezarri da</p> <p>Proposamenean:</p> <p>Organo eskumenduna zuzena da</p>	<p>Bai</p> <p><u>Ez</u></p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p> <p>Bai</p>	<p>Interes publikoa justifikatu behar da</p>
Ondorioa	Oharrak	
X Aldeko txostena oharrekin	Idazkaritzako AOTak 2023ko maiatzaren 25ean egindako txostenarekin bat egiten da. Hori horrela, aldaketa egiteko	



	<p>interes publikoa justifikatu behar da.</p> <p>Txosten hau Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 203-207 eta 335.2 artikuluetan zehaztutakoa kontuan hartuz egin da.¹</p> <p>Kontuan izan aldaketa formalizatu behar dela (SPKLaren 123.3 art) eta Kontratugilearen profilean argitaratu beharko dela (SPKLaren 63.3.c artikulua).</p>
--	--

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2023ko ekainaren 26an

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

¹Sektore Publiko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikulua. Kontratua aldatzeko ahal.

1. Kontratastaren ondorengotzari, kontratua lagatzeari, prezioak berrikusteari eta kontratua egikaritzeko epea luzatzeari buruz lege honetan aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe, administrazio-kontratuak soilik interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko dira, eta azpiala honetan aurreikusitako moduan, 191. artikuluan araututako prozedurari jarraituz betiere, 207. artikuluan ezarritako berezitasunekin.

2. Kontratazio-organismoek egindako administrazio-kontratuak, indarrean daudenean, honako kasu hauetako bat gertatzen denean aldatu ahalko dira soilik:

a) Administrazio-klausula partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan;

b) Aparteko kasuetan, administrazio klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 205. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean.



Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz beste modu batean egikaritzea indarrean den kontratua, kontratua suntsiaraziko da eta beste bat egingo da kasuan kasuko baldintzekin, eta, beharrezkoa bada, lizitazio publiko berri baterako deialdia egin eta gauzatuko da aurrez, lege honetan ezarritakoari jarraituz, eta alde batera utzi gabe segurtasun-arrazoiengatik, zerbitzu publikoaren arrazoiengatik edo hondamen arriskuagatik beharrezkoak diren neurriak hartzeko kontratistak duen betebeharrari dagokionez 213. artikulua 6. apartatua xedatutakoa.

3. Kontratu-aldaketak 153. artikulua xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoari jarraituz argitaratu beharko dira.

204. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirietan aurreikusitako aldaketak.

1. Administrazio publikoen kontratuak, indarrean daudenean, soilik hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte aldatu ahalko dira, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirietan berariaz aukera horri buruz ohartarazi bada modu honetan eta eduki hauekin:

a) Aldaketa-klausulak modu argi, zehatz eta zalantzagabean formulatuta egon beharko du.

b) Halaber, haren edukiari dagokionez, aldaketa-klausulak honako hauek zehaztu beharko ditu behar besteko xehetasunarekin: norainokoa, mugak eta izaera; hartaz baliatu ahal izateko baldintzak, erreferentzia eginez modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei, eta aldaketarako jarraitu beharreko prozedura.

Aldaketa-klausulak ezarriko du, halaber, aldaketak ezingo duela berekin ekarri kontratua aurreikusi gabeko prezio unitario berririk. Aldaketa-klausularen formulazioak eta edukiak halakoak izan beharko dute, non, batetik, hautagaiek eta lizitatuzaileek haien norainoko zehatza ulertu ahalko duten eta modu berean interpretatu ahalko duten eta, bestetik, kontratazio-organoari aukera emango dioten bai egiazki egiaztatzeko lehenengoek eskatzen diren gaitasun-baldintzak betetzen dituztela eta bai zuzen baloratzeko horiek aurkeztutako eskaintzak.

2. Kontratazio-organoek ezingo dute inoiz ere aurreikusi administrazio-klausula partikularren agirian hasierako kontratuaren izaera orokorra alda dezakeen aldaketarik.

Nolanahi ere, izaera orokorraren aldaketatzat hartuko da eskuratuko diren obrak, hornidurak edo zerbitzuak beste batzuekin ordeztzea edo kontratu mota aldatzea. Ez da hartuko kontratuaren izaera orokorraren aldaketatzat obra-unitateren bat, horniduraren bat edo zerbitzu jakinen bat ordeztzea.

207. artikulua. Prozedurako berezitasunak.



1. Lege honen 204. artikuluan aurreikusitako kasuan, kontratu-aldaketak administrazio klausula partikularren agirietan zehaztutako moduan egingo dira.

2. Kontratua 205. artikuluari jarraituz aldatu aurretik, entzun egin beharko zaio proiektua edo zehaztapan teknikoak idatzi dituenari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek idatzi baditu, zerbitzukontratu baten ondorioz. Hala, hiru eguneko edo gehiagoko epean, egokitzen jotzen dituen oharra egin ahalko ditu.

3. Erregulazio harmonizatuko kontratu bat aldatzen duten kontratazio-organoei –IV. eranskinean zerrendatutako zerbitzuen kontratuen eta zerbitzu horien emakiden kontratuen kasuetan izan ezik–, 205. artikuluan 2. apartatuaren a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dute aldaketari buruzko iragarkia, lege honetan ezarritakoari jarraituz. Halaber, indarrean dagoen bitartean kontratua aldatu duten kontratazio-organoei, alde batera utzita kontratu hori erregulazio harmonizatukoa den ala ez eta zein den aldaketa justifikatzen duen arrazoia, argitaratu egin beharko dute, nolahi ere, aldaketari buruzko iragarki bat kontratazio-organoen kontratatzailearen profilean hura onesten denetik 5 eguneko epean; eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere aurkeztu beharko dira, horren barnean direla adjudikaziodunak aurkeztutakoak edo kontratazio-organoei berak emandakoak.

4. 191. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten 191. artikuluan ezarritakoa.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000CF6E200P8D9Y9H4X7H9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
26/06/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/06/2023
13:48:32

EXPEDIENTE ::
2021KON_IS_0004
Data: 23/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

